Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 2a, astelehena — 81 — Lunes, a 2 de mayo de 2022



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2022ko deialdia onestea: Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programakoak.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2022ko apirilaren 26an:

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoarekin bat (non Gipuzkoako garapenerako eredu ekonomiko eta sozial baten alde egiten den), egoerari aurrea hartuz eta proposatzaile eta sustatzaile papera betez, lurralde bat –Gipuzkoa– sustatzen lagundu behar du, politika ekonomiko eta sozialak diseinatuz eta aplikatuz, pertsonen eta gizarte kohesioan oinarrituta. Eta horretarako, lankidetzako gobernantza ereduen bidez, eragile mota desberdinak ahaldunduko ditu (pertsonak, enpresak, antolamendu sozio-ekonomikoak eta prestakuntzakoak, eskualdeak eta lurralde bera), jasangarritasun hirukoitza lortzeko ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez, non pertsonak eta enpresak eragile nagusiak diren, konpromisoa eta balio sozial partekatuaren ekarpenaren bidez.

Oro har, eta Gipuzkoan, bereziki, txikizkako merkataritza eta ostalaritza (gero eta gehiago) funtsezko sektoreak dira Gipuzkoako ekonomiarako, bai garapen sozioekonomikorako, bai enplegua sortzeko.

Sektore honek, lehiakortasun jasangarrira bideratuta garatzeko, honako hauek integratu behar zituen: berrikuntza, kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko; eskarira iristea, omnikanalitatetik abiatuta; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; eta sektoreen arteko sinergiak garatzea. Azken batean, zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna, berezitasunetik abiatuta, tamainak eta globalizazioak definitutako lehia baten aurrean.

Nolanahi ere, elementu komun bat pertsonek azken kontsumoa konfiguratzen duten kontsumo-jarraibideekiko mendetasuna da. COVID-19aren krisiak larriagotu egin du gertaera hori, eragin zuzena izan baitu sektore horietako ekonomiaren eta enpleguaren biziraupenean.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jo du ezohiko laguntza integral bat antolatzea, tokiko kontsumoarekin eta eskariarekin lotuta, etorkizuneko erronkei erantzun diezaieketen planteamenduak hastera bideratutako jarduerak ahalbidetzeko (jasangarritasun hirukoitza: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa).

Konpromiso hori 2020ean eta 2021ean ekitaldietan zehaztu da. Hala, hainbat jarduera jarri dira abian, zuzenean edo beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan (informazioa eta orientazioa, zuzeneko laguntzak, finantzaketarako sarbidea, udalen bidezko laguntzak, zerga tratamenduak, etab.). Eta 2022ko ekitaldi honetan sakondu egin da, laguntza espezifikoekin eta orientabide fokalizatuagoekin.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Modificación de las bases reguladoras y aprobación de la convocatoria 2022 de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 26 de abril de 2022:

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, en coherencia con el Plan Estratégico de la Diputación Foral 2020-2023 donde se apuesta por un modelo de desarrollo económico y social de Gipuzkoa, desde su rol de anticipación, proponente e impulsor, debe contribuir desde el diseño y aplicación de políticas económicas y sociales a promover un territorio –Gipuzkoa– basado en el bienestar de las personas y la cohesión social; y para ello, a través de modelos de gobernanza colaborativa va a empoderar al conjunto de agentes (personas, empresas, organizaciones socio-económicas y formativas, comarcas y el propio territorio), orientándolo al logro de una triple sostenibilidad: económica, social y medio-ambiental. Y, donde las personas y las empresas, con su aportación –compromiso y valor social compartido– son agentes clave.

En general, y en Gipuzkoa, en particular, el comercio minorista y la hostelería (de forma creciente) se configuran como unos sectores claves para la economía guipuzcoana, tanto para su desarrollo socio-económico como para la generación de empleo.

Unos sectores que de por sí, para desarrollarse orientados a una competitividad sostenible se enfrentaban a integrar la innovación para adaptarse a los nuevos hábitos de consumo; la llegada a la demanda desde la omnicanalidad, la incorporación de las nuevas tecnologías de información y comunicación; y, el desarrollo de sinergias intersectoriales. En definitiva, la capacidad de ofrecer servicios desde la singularidad ante una competencia definida por el tamaño y la globalización.

En todo caso, un elemento común es su dependencia de las pautas de consumo donde las personas configuran el consumo final. Hecho que se ha visto agravado por la crisis de la COVID-19 que ha incidido de una forma directa en la supervivencia económica y del empleo en estos sectores.

Es por ello que, desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, se ha entendido necesario articular un apoyo integral extraordinario para que, desde la vinculación al consumo y la demanda local, puedan posibilitarse actuaciones orientadas a iniciar planteamientos que puedan responder a sus retos de futuro (triple sostenibilidad: económica, social y medioambiental).

Ese compromiso se ha ido concretando en los ejercicios 2020 y 2021. Así, se han puesto en marcha diferentes actuaciones, bien directamente o bien en colaboración con otras entidades públicas y privadas (información y orientación, ayudas directas, acceso a financiación, ayudas a través de los ayuntamientos, tratamientos fiscales, etc.). Y, que en este ejercicio 2022 se ha profundizado, con ayudas específicas y unas orientaciones más focalizadas.

EK\CV GAO-I-2022-02589

Laguntza ildo horretan, eta modu osagarrian, trantsizio digitalaren erronkaren aurrean, beharrezkotzat jotzen da bi sektoreek (txikizkako merkataritza eta ostalaritza) bezeroekin eta erakunde hornitzaileekin, euskarri digitaletan oinarritutako harreman berrietarako lan egiteko moduetara egokitzeko egiten duten ahalegina babestea.

Ildo horretan, eta aurreko ekitaldiko esperientziaren balorazio positiboa eginez, honako hauek nabarmendu behar dira:

— Digitalizazio-prozesua azkartzeko beharra.

— Enpresetan izan duen harrera.

— Horien digitalizazioan izan duen eragina.

— Departamentuaren lankidetza Ogasun eta Finantza Departamentuarekin, hain zuzen.

Alde batetik, egokitzat jotzen da beste deialdi bat egitea 2022ko ekitaldirako. Eta, beste aldetik, TicketBAIren bidez pertsona eta enpresa onuradunak fakturazio-prozesuetan nola sartzen diren ebaluatzeko mekanismoak txertatuko dira.

Azkenik, esan beharra dago dirulaguntza horiek, Gipuzkoa Indartuz ekimenean aurreikusita egon arren, ez daudela sartuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE). Beraz, dirulaguntza ezarri aurretik, Plan Estrategikoan sartu behar da, planaren 3.1 atalean aurreikusi bezala.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Sartzea merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programaren dirulaguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE).

*Bigarren.* Aldatzea, erabaki honen I. eranskinean ezarritako baldintzetan, Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko Programaren dirulaguntzen 2., 4. eta 6. oinarri arautzaileak. Oinarri horiek Diputatuen Kontseiluaren 2021eko irailaren 7ko erabakiaren bidez onetsi ziren (2021ko irailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 176. zk.) eta Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez aldatu ziren 2021eko urriaren 26an.

*Hirugarren.* Onestea aipatutako laguntzen 2022. urteko deialdia; erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Laugarren.* 2022ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 1.500.000,00 euroko gastua baimentzea, aurrekontu sail honen kargura 1.0410.100.470.00.40.2022.

Ildo beretik, baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

En esta línea de apoyo, y de forma complementaria, se entiende necesario, ante el reto de la transición digital, apoyar el esfuerzo de ambos sectores (comercio minorista y hostelería) por adecuarse a las formas de trabajo para las nuevas relaciones, basadas en soportes digitales, con la clientela y las entidades proveedoras.

En este sentido, haciendo una valoración positiva de la experiencia del ejercicio anterior, cabe destacar:

— La necesidad de acelerar el proceso de digitalización.

— La acogida que ha tenido en las empresas.

— La influencia en la digitalización de las mismas.

— La colaboración del departamento con el Departamento de Hacienda y Finanzas.

Por un lado, se considera oportuno realizar una nueva convocatoria para el ejercicio 2022. Por otro lado, a través de TicketBAI se incorporarán mecanismos de evaluación de la incorporación de las personas y empresas beneficiarias a los procesos de facturación.

Finalmente, resta mencionar que estas subvenciones, aunque previstas en la iniciativa Gipuzkoa Indartuz, no se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por tanto, previamente a su establecimiento y en aplicación de la previsión contenida en el apartado 3.1 del PES, procede su inclusión.

En consecuencia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Incluir en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería.

*Segundo.* Modificar, en los términos establecidos en el anexo I al presente acuerdo, las bases reguladoras 2.ª, 4.ª y 6.ª de las subvenciones del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 7 de septiembre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 176 de 14 de septiembre de 2021) y modificadas mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de octubre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 206 de 27 de octubre de 2021 (número 206).

*Tercero.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2022 de las citadas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Cuarto.* Autorizar un gasto por importe de 1.500.000,00 euros para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2022 con cargo a las la partida presupuestaria 1.0410.100.470.00.40.2022:

Asimismo, el importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia, 2022ko apirilaren 27a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (2589)

I. ERANSKINA

*2021eko irailaren 7an Diputatuen Kontseiluak onetsi zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, irailaren 14an, 176 zk.) Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko Programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileen eta deialdi horren aldaketaren (2021eko urriaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 206. zenbakia) aldaketak.*

Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko Programaren dirulaguntzen 2., 4. eta 6. oinarri arautzaileak aldatu egiten dira, eta honela jasoko dira:

- 2. oinarria. Enpresa onuradunen baldintzak.

2.1. Onuradunak izango dira jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoak, nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeak eta pertsona juridikoak, baldin eta haien zerga-egoitza eta lantokia Gipuzkoan badago eta haien jarduera (2022ko urtarrilaren 1a baino lehen) oinarri hauen eranskinean zerrendatutakoen artean badago.

2.2. Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, oinarri hauen objektu diren laguntzen onuradun izateko baldintza da, halaber, Zergabidearen bidez izapidetutako eskaeraren dataren aurreko 15 egun naturaletan TicketBAI altako 15 fitxategi gutxienez Gipuzkoako zerga-administrazioan jaso izana, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duen 2020ko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuan jasotako definizioaren arabera. Horretarako, FakturaBAI edo Ef4ktur ez den beste software bat erabiliko da.

2.3. Laguntza emateko baldintza izango da dirulaguntza hauek argitaratzen direnetik 2022ko irailaren 1era bitartean, gutxienez 120 TicketBAI altako fitxategi bidaltzen jarraitzea. Horretarako, FakturaBAI. ez den beste software bat erabiliko da.

Azken baldintza hori betetzen ez bada, ebazpena aldatu egingo da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da.

2.4. Pertsona fisiko eta juridiko onuradunek, bai eta nortasun juridikorik gabeko erakunde onuradunetan sartzen direnek ere ez dute administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso behar sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2.5. Ezingo dira onuradun izan Diputatuen Kontseiluak 2021eko irailaren 7an onartu eta 2021eko irailaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian (176. zenbakia) ez eta deialdi horren aldaketaren ondorioz (2021eko urriaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 206. zenbakia) onuradun izan ziren pertsona fisiko eta juridikoak.

2.6. Dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, eta osasunegoerak eragindako inguruabar sozio-ekonomikoak eta transizio digitalak dakartzan kontsumo ohitura berriak, eta diruz laguntzen diren jarduera sektoreetan duen eragina kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 7ko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskatzaileak salbuetsita geratzen dira zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzetik.

San Sebastián, a 27 de abril de 2022.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (2589)

ANEXO I

*Modificación de las bases reguladoras del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 7 de septiembre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 176 de 14 de septiembre de 2021) y de la modificación de las mismas, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 27 de octubre de 2021 (número 206).*

Se modifican las bases reguladoras 2, 4 y 6 del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa, que quedan redactadas del siguiente modo:

- Base 2.ª Requisitos de las empresas beneficiarias.

2.1. Serán beneficiarias las personas físicas con actividad económica, las agrupaciones de personas físicas o jurídicas carentes de personalidad jurídica y las personas jurídicas cuyo domicilio fiscal, así como su centro de trabajo, se encuentre en Gipuzkoa y cuya actividad (con fecha previa al 1 de enero del 2022) se encuadre entre las relacionadas en el anexo de las presentes bases.

2.2. Además de lo señalado en el apartado anterior, es asimismo requisito para ser beneficiario de las ayudas objeto de las presentes bases que, en los últimos 15 días naturales anteriores a la fecha de la solicitud tramitada a través de Zergabidea, se hayan recibido en la administración tributaria guipuzcoana un mínimo de 15 ficheros de alta TicketBAI, según la definición recogida en el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI. Para ello, se deberá utilizar un software diferente a FakturaBAI o Ef4ktur.

2.3. La concesión de la ayuda quedará condicionada a que en el plazo comprendido entre la publicación de estas ayudas y el 1 de septiembre de 2022 se sigan enviando un mínimo de 120 ficheros de alta TicketBAI, utilizando para ello un software diferente a FakturaBAI.

El incumplimiento de este último requisito dará lugar a la modificación de la resolución y en su caso a la devolución de la subvención.

2.4. Las personas físicas y jurídicas beneficiarias, así como las que se integren en las entidades sin personalidad jurídica beneficiarias, no deberán haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

2.5. No podrán ser beneficiarias las personas físicas y jurídicas que fueron beneficiarias en la convocatoria aprobada en Consejo de Gobierno Foral el 7 de septiembre de 2021 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 14 de septiembre de 2021 (número 176) y la modificación de las mismas, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 27 de octubre de 2021 (número 206).

2.6. Dada la naturaleza de la subvención en atención a las circunstancias de salud y socio-económicas derivadas de la crisis sanitaria y los nuevos hábitos de consumo que supone la transición digital; y su incidencia en los sectores de la actividad que se subvencionan, conforme a lo previsto en el artículo 12.2. de la Norma Foral 3/2007, de 7 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se exime a los solicitantes de acreditar estar al corriente en sus obligaciones tributarias y ante la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2022-02589

2.7. Onuradunek baimena ematen diote Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurumeneko Departukari Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatzeko bideratutako dokumentazioa FakturaBai edo beste software bati dagokio.

• 4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Eskaerak horretarako dagoen berariazko inprimakia erabiliz aurkeztuko dira.

4.2. Eskaerak izenpetzeko: (i) pertsona fisikoen kasuan, interesdunak berak; legeek onartutako moduetatik edozeinen bidez haren ordezkaritza egiaztatzen duenak edo zerga-ordezkaritza duenak; (ii) pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, legeek onartutako moduetatik edozeinen bidez entitate interesdunaren ordezkaritza egiaztatzen duenak edo zerga-ordezkaritza duenak.

4.3. Deialdiaren informazioa eskuragarri egongo da Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren web orrian nahi duenarentzat. https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia.

4.4. Eskaera orria, deialdian itsatsitako ereduari jarraituz, honako web orri honen bitartez aurkeztuko dira: zergabidea.gipuzkoa.eus.

4.5. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak automatikoki egiaztatuko du, eskaera egiten den unean, Zergabidea plataforman:

— Pertsona edo entitate eskatzaileak helbide fiskala Gipuzkoan duela.

— Gipuzkoako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden epigrafeak, 2022ko urtarrilaren 1eko egoera, eta egungo egoera.

— Azken 15 egun naturaletan jasotako TicketBAI altako fitxategien kopurua.

Ondoren, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du TicketBAI altako fitxategiak FakturaBAI edo Ef4ktur. ez den beste software batekin sortu eta bidali direla eta 2022ko irailaren 1era arte egindako bidalketen guztizko kopuruak 2.3 puntuan ezarritakoa betetzen duela.

Eskaera ezin bada Zergabidetik izapidetu, edo eskatzaileak Zergabidea plataforma erabiltzeko baimen inplizitua edo ondoren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egin beharreko kontrolerako beharrezkoa den datu-lagapena berariaz ukatu nahi duenean, eskaera eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera).

4.6. Deialdian finkatuko da eskaerak aurkezteko epea.

4.7. Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

• 6. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

6.1. Enpresa bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa mila eurokoa (1.000,00 €) izango da.

6.2. Bidalitako TicketBAI altako fitxategiei dagozkien faktura osoak edo sinplifikatuak euskaraz bidaltzen badira, laguntza % 20 handituko da. Horretarako, eskabidea egiteko idazkian aukera hori adieraziko da, eta aldi horretan egindako eta baldintza hori betetzen duten fakturen, osoa edo sinpifikatua, gutxienez 5 irudi erantsiko dira.

2.7. Las personas y empresas beneficiarias autorizan al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural a contrastar con el Departamento de Hacienda y Finanzas si la documentación tramitada corresponde a Faktura Bai u otro software diferente.

• Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.

4.1. Las solicitudes se presentarán utilizando el formulario específico disponible a estos efectos.

4.2. Las solicitudes se suscribirán, (i) en el caso de personas físicas, por el propio interesado, por quien acredite su representación legal por cualquier medio válido en derecho o por quien ejerza su representación tributaria; (ii) en el caso de personas jurídicas y de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas carentes de personalidad jurídica, por quien acredite la representación legal de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho o por quien ejerza su representación tributaria.

4.3. La información de la convocatoria estará disponible en la página web del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia.

4.4. La instancia de solicitud, según el modelo que se facilite en la convocatoria, se presentará a través de la siguiente página web: zergabidea.gipuzkoa.eus.

4.5. El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, verificará de forma automática en el momento de la elaboración de la solicitud en la plataforma Zergabidea:

— Que la persona o entidad solicitante tiene el domicilio fiscal en Gipuzkoa.

— Los epígrafes en los que consta de alta del impuesto de Actividades Económicas en Gipuzkoa, su situación a 1 de enero de 2022, y la situación actual.

— El número de ficheros de alta TicketBAI recibidos en los últimos 15 días naturales.

Con posterioridad el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará que los ficheros de alta TicketBAI se han generado y enviado con un software diferente a FakturaBAI o Ef4ktur y que el número total de envíos realizados hasta el 1 de septiembre de 2022 cumplen con lo establecido en el punto 2.3.

Cuando la solicitud no pueda tramitarse por Zergabidea, o cuando el solicitante quiera denegar expresamente el consentimiento implícito que supone la utilización de la plataforma Zergabidea o la cesión de datos posterior necesaria para el posterior control que deba realizar el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, deberá presentar la solicitud y los certificados correspondientes en el Registro Electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/inicio).

4.6. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.7. La entidad solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

• Base 6.ª Cuantía de la ayuda.

6.1. La cuantía de la ayuda por empresa será de mil euros (1.000,00 €).

6.2. En el caso de que las facturas, completas o simplificadas, correspondientes a los ficheros de alta TicketBAI enviados se emitan en euskera, la ayuda se incrementará en un 20 %. A tal efecto, en el escrito de solicitud se indicará esta opción y se adjuntará la imagen de al menos 5 de las facturas, completas o simplificadas emitidas en dicho periodo que cumplan con este requisito.

ERANSKINA

LAGUNTZA PROGRAMA HONEN ARABERA HAUTAGARRITZAT JOTZEN DIREN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN EPIGRAFEEN ZERRENDA

1461. Zura zerratzea eta industri prestakuntza.

1462. Zurez erdi egindako produktuen fabrikazioa.

1463. Eraikuntzarako zurgintza piezak, parketa eta zurezko egituren fabrikazioa sailean.

1464. Zurezko ontzi eta sortaketen fabrikazioa.

1465. Zurezko gauza ezberdinen fabrikazioa (altzariak ezik).

1466. Kortxozko ekoizkinen fabrikazioa.

1467. Ihizko eta kanaberazko artikuluak, saskigintza, brotxak, arraboten, etabarren fabrikazioa (altzariak ezik).

1468. Zurezko altzarigintza.

1504. Instalazioak eta muntaiak.

1505. Obren amaiera.

1611. Edozein eratako merkantzien handizkako merkataritza.

1612. Nekazal lehengaien, elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza.

1613. Ehungintza, konfekzio, oinetako eta larrugaien handizkako salmenta.

1614. Lurringaien eta etxearen mantenimendurako eta funtzionamendurako produktu farmazeutikoen handizkako salmenta.

1615. Luzerako kontsumoa duten artikuluen handizkako salmenta.

1616. Meakinen eta kimikagaien industriarteko handizkako salmenta.

1617. Industriarteko handizkako beste salmenta batzuk (mea eta kimikagaiena ezik).

1618. Merkatalgo esportatzaileak eta zona eta biltegi frankoetako handizkako salmenta.

1619. 612tik 618 arteko taldeetan zehaztu gabekoen beste handizkako salmenta batzuk.

1621. Txatarraren eta burdinazko eta burdinazko ez diren hondakinen handizkako salmenta.

1622. Berreskuraketako beste produktu batzuren handizkako salmenta.

1623. Betiko establezimenduetatik kanpo egiten den hondakinen berreskuraketa eta salmenta.

1631. Salmentarako bitartekariak.

1641. fruitu, ortukariak, barazkiak eta tuberkuluen txikizkako salmenta.

1642. Haragi eta haragi hondakinen, haragiz elaboratutako produktuen, arrautzen, granjetako untxien, ehizaren; eta horien eratorrien txikizkako salmenta.

1643. Arrainen eta arrantzako beste produktu batzuen, arrai haztegien eta barraskilo hazkuntzaren txikizkako salmenta.

1644. Ogiaren, gozokien, konfiteen eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako salmenta.

1645. Ardo eta era guztietako edarien txikizkako salmenta.

1646. Tabako gaien eta erretzailearentzako artikuluen txikizkako salmenta.

1647. Elikagaien eta edarien txikizkako salmenta, oro har.

1651. Ehungintzako produktu, jantzigintza, oinetakogintza, larru eta larruki artikuluen txikizkako salmenta.

ANEXO

RELACIÓN DE EPÍGRAFES DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS QUE SE CONSIDERAN ELEGIBLES A AFECTOS DEL PRESENTE PROGRAMA DE AYUDAS

1461. Aserrado y preparación industrial de la madera.

1462. Fabricación de productos semielaborados de madera.

1463. Fabricación en serie de piezas de carpintería, parquet y estructuras de madera para la construcción.

1464. Fabricación de envases y embalajes de madera.

1465. Fabricación de objetos diversos de madera (excepto muebles).

1466. Fabricación de productos de corcho.

1467. Fabricación de artículos de junco y caña, cestería, brochas, cepillos, etc. (excepto muebles).

1468. Industria del mueble de madera.

1504. Instalaciones y montajes.

1505. Acabado de obras.

1611. Comercio al por mayor de toda clase de mercancías.

1612. Comercio al por mayor de materias primas agrarias, productos alimenticios, bebidas y tabaco.

1613. Comercio al por mayor de textiles, confección, calzado y artículos de cuero.

1614. Comercio al por mayor de productos farmacéuticos de perfumería y para el mantenimiento y funcionamiento del hogar.

1615. Comercio al por mayor de artículos de consumo duradero.

1616. Comercio al por mayor interindustrial de la minería y química.

1617. Otro comercio al por mayor interindustrial (excepto de la minería y de la química).

1618. Comerciales exportadoras y comercio al por mayor en zonas y depósitos francos.

1619. Otro comercio al por mayor no especificado en los grupos 612 al 618.

1621. Comercio al por mayor de chatarra y metales de desecho férreos y no férreos.

1622. Comercio al por mayor de otros productos de recuperación.

1623. Recuperación y comercio de residuos fuera de establecimiento permanente.

1631. Intermediarios del comercio.

1641. Comercio al por menor de frutas, verduras, hortalizas y tubérculos.

1642. Comercio al por menor de carnes y despojos; de productos y derivados cárnicos elaborados; de huevos, aves, conejos de granja, caza; y de productos derivados de los mismos.

1643. Comercio al por menor de pescados y otros productos de la pesca y de la acuicultura y de caracoles.

1644. Comercio al por menor de pan, pastelería, confitería y similares y de leche y productos lácteos.

1645. Comercio al por menor de vinos y bebidas de todas clases.

1646. Comercio al por menor de labores de tabaco y de artículos de fumador.

1647. Comercio al por menor de productos alimenticios y bebidas en general.

1651. Comercio al por menor de productos textiles, confección, calzado, pieles y artículos de cuero.

EK\CV GAO-I-2022-02589

1652. Sendagaien eta farmazi produktuen; drogeri eta garbiketarako artikuluen; lurringintza eta era guztietako kosmetikoen; oro har kimika produktuen, eta belar dendetako belar eta landareen txikizkako salmenta.

1653. Etxe eta eraikuntza ekipamendurako artikuluen txikizkako salmenta.

1654. Lurreko ibilgailuen, aireontzien, itsasontzien eta makineriaren eta errekanbiorako piezen txikizkako salmenta.

1655. Erregai, karburante eta lubrikanteen txikizkako salmenta.

1656. Ondasun erabilien txikizkako salmenta, hala nola, etxean erabiltzeko altzari, jantzi eta tresna arruntena.

1657. Musika instrumentuen eta beren akzesorioen txikizkako salmenta, oro har.

1659. Bestelako txikizkako salmenta.

1661. Salmenta mistoa edo azalera handietan integratua.

1662. Txikizkako salmenta mistoa edo integratua.

1663. Txikizkako salmenta, merkatal establezimendu finkotik kanpo (merkatu ibiltariak, merkatu txikiak, noizbehinkako edo aldizkako azokak).

1664. Salmenta, gordailuetako erakusketa bidez eta aparatu automatikoen bidez egitea.

1665. Zenbait produktuen txikizkako salmenta, posta bidez edo katalogo bidez egiten denean.

1671. Jantoki zerbitzua.

1672. Kafetegi zerbitzua.

1673. Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta taberna zerbitzua.

1674. Jatetxe, kafetegi eta kafetegi-tabernetako zerbitzu bereziak.

1675. Kiosko, kaxoi, barraka edo antzeko lokaletan ematen diren zerbitzuak, merkatu edo abastu plazetan, bide publikoan edo lorategietan aire zabalean ematen direnak.

1676. Txokolategi, izozkitegi eta hortxategietako zerbitzuak.

1677. 67 eta 68 agrupazioetako 671, 672, 673, 681 eta 682 taldeetan sailkatutako establezimenduek eskainitako zerbitzuak, aipatu establezimenduetatik kanpo emanak. elikagaietako beste zerbitzu batzuk.

1691. Etxerako, auto ibilgailuentzat eta beste kontsumo ondasun zenbaitetarako artikulu elektrikoen konponketa.

1755. Bidai agentziak.

1971. Ikuztegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

1972. Ileapaindegiak eta gorputz apaindegiak.

1973. Argazki zerbitzuak, argazkietarako makina automatikoak eta fotokopi zerbitzuak.

1975. Enmarkazio zerbitzuak.

2432. Barnekoen dekoratzaileak diseinugileak.

2861. Pintoreak, eskulturgileak, keramikariak, artisauak, grabatzaileak eta antzeko artistak.

II. ERANSKINA

*Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programako dirulaguntzen 2022. urteko deialdia.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko Programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak 2021eko irailaren 7ko eraba-

1652. Comercio al por menor de medicamentos y de productos farmacéuticos; artículos de droguería y limpieza; perfumería y cosméticos de todas clases; y de productos químicos en general; hierbas y plantas en herbolarios.

1653. Comercio al por menor de artículos para el equipamiento del hogar y la construccion.

1654. Comercio al por menor de vehículos terrestres, aeronaves y embarcaclones y de maquinaria, accesorios y piezas de recambio.

1655. Comercio al por menor de combustibles, carburantes y lubricantes.

1656. Comercio al por menor de bienes usados tales como muebles, prendas y enseres ordinarios de uso doméstico.

1657. Comercio al por menor de instrumentos musicales en general, así como de sus accesorios.

1659. Otro comercio al por menor.

1661. Comercio mixto o integrado en grandes superficies.

1662. Comercio mixto o integrado al por menor.

1663. Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente (ambulancia, mercadillos y mercados ocasionales o periódicos).

1664. Comercio en régimen de expositores en depósito y mediante aparatos automáticos.

1665. Comercio al por menor por correo o por catálogo de productos diversos.

1671. Servicios en restaurantes.

1672. En cafeterías.

1673. En cafés y bares, con y sin comida.

1674. Servicios especiales de restaurante, cafetería y cafe-bar.

1675. Servicios en quioscos, cajones, barracas u otros locales análogos,situados en mercados o plazas de abastos, al aire libre en la vía publica o jardines.

1676. Servicios en chocolaterías, heladerías y horchaterías

1677. Servicios prestados por los establecimientos clasificados en los grupos 671, 672, 673, 681 y 682 de las agrupaciones 67 y 68, realizados fuera de dichos establecimientos. Otros servicios de alimentación.

1691. Reparación de artículos eléctricos para el hogar, vehículos automóviles y otros bienes de consumo.

1755. Agencias de viajes.

1971. Lavanderias, tintorerias y servicios similares.

1972. Salones de peluquería e institutos de belleza.

1973. Servicios fotograficos, maquinas automáticas fotográficas y servicios de fotocopias.

1975. Servicios de enmarcación.

2432. Decoradores-diseñadores de interiores.

2861. Pintores, escultores, ceramistas, artesanos, grabadores y artistas similares.

ANEXO II

*Convocatoria 2022 de las ayudas del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa.*

1. *Bases reguladoras.*

Las bases reguladoras para la concesión de las ayudas del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa son las aprobadas por acuerdo

EK\CV GAO-I-2022-02589

kiaren bitartez onartutakoak dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 176. zki. 2021eko irailaren 14an), eta Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez aldatu ziren 2021eko urriaren 26an (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 206 zk. 2021eko urriaren 27an) eta 2022ko apirilaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi honekin batera argitaratuak.

*2. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 23an, goizeko 12:00etan amaituko da.

*3. Ebazpena jakinarazteko bidea.*

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

*4. Finantzaketa.*

Deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzen zenbateko osoa 1.500.000,00 eurokoa da. Zenbateko hori 1.0410.100.470.00.40.2022 aurrekontuko kontu sailaren kargura izango da.

*5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Deialdi honi erantsitako eskabidea soilik aurkeztuko da. Eskabide horren formularioa eskuragarri egongo da zergabidea webgunean.

del Consejo de Gobierno Foral de 7 de septiembre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 176, de 14 de septiembre de 2021); y posteriormente modificadas mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de 26 de octubre de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 206, de 27 de octubre de 2021) y del Consejo de Gobierno de 26 de abril de 2022, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con esta convocatoria.

*2. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de las solicitudes finalizará el 23 de junio de 2022 a las 12:00 horas.

*3. Medio de notificación de la resolución.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de concesión o, en su caso denegación será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

*4. Financiación.*

La cuantía total de las subvenciones a conceder en la presente convocatoria será de 1.500.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0410.100.470.00.40.2022.

*5. Documentación a presentar.*

Únicamente se presentará la solicitud que se acompaña como anexo a la presente convocatoria. El formulario de dicha solicitud estará disponible en la página web zergabidea.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

**ERANSKINA**

**ANEXO**

**Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programako dirulaguntzen 2022. urteko deialdiaren eskaera.**

**Solicitud a la convocatoria de ayudas 2022 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería de Gipuzkoa**.

**Eskatzailea jarduera ekonomikoa duen pertsona fisikoa bada / En el caso de que el solicitante sea una persona física con actividad económica:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | | IFZ/NIF | |
| Ordezkaria / Representante | | NAN / DNI | |
| Telefonoak / Teléfonos | | Helbide elektronikoa / Correo electrónico | |
| Kontu korrontea / Cuenta corriente* | | | |

* Kontu korrenteak eskatzailearen titulartasunekoa izan behar du. / La cuenta corriente debe ser de titularidad del solicitante.

**Eskatzailea pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldea bada: / En el caso de que el solicitante sea una persona jurídica o una agrupación de personas físicas o jurídicas carentes de personalidad jurídica:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izen soziala / Razón social | | IFZ/NIF | |
| Ordezkaria / Representante | | NAN / DNI | |
| Telefonoak / Teléfonos | | Helbide elektronikoa / Correo electrónico | |
| Kontu korrontea / Cuenta corriente* | | | |

* Kontu korrenteak eskatzailearen titulartasunekoa izan behar du. / La cuenta corriente debe ser de titularidad del solicitante.

| | |
|---|---|
| Eskatutako zenbatekoa / Importe Solicitado | 1.000,00 € |

* 6.2 oinarrian ezarritakoaren arabera bidalitako TicketBAI altako fitxategiei dagozkien faktura osoak edo sinplifikatuak euskaraz bidaltzen bidaltzen badira, laguntza %20 handituko da. / De acuerdo con lo establecido en la base 6.2 en el caso de que las facturas, completas o simplificadas, correspondientes a los ficheros de alta TicketBAI enviados se emitan en euskera, la ayuda se incrementará en un 20%.

☐ Fitxategietako fakturak euskaraz bidaltzen dira. / Las facturas de los ficheros se emiten en euskera.

**ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA**

Eskatzaileak adierazten du:

**1.** Ez bera ezta berak ordezkatzen duen pertsona ere ez daude sartuta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoak, aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

**DECLARACIÓN RESPONSABLE**

El/la solicitante declara:

**1º.** Que no concurren ni en él/ella ni en la persona a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres .

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

**2.** Ez dago martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26.3 artikuluan aurreikusten dituen egoeretan.

**2º.** Que no incurre en ninguno de los supuestos previstos en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

.

**3.** Deialdi honetan jarduera bererako eskatutako edo eskuratutako dirulaguntzak honako hauek dira:

**3º.** Que las subvenciones solicitadas y/o obtenidas para la misma actuación de la presente convocatoria han sido las siguientes:

| Erakundea / Organismo | Deialdia / Convocatoria | Eskaera edo onarpen data / Fecha de solicitud o aprobación | Eskatutako edo jasotako kopurua / Importe solicitado o recibido |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |

**4.** Entitate eskatzaileak aitortzen du, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan aurrekontu publikoen kargura finantzatutako erakunde publiko edo pribatuen minimis izeneko dirulaguntza hauek (200.000 baino gutxiagokoak) eskuratu dituela:

**4º.** Que las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos recibidos en el ejercicio fiscal en curso y durante los dos ejercicios fiscales anteriores, cuyo importe total es inferior a 200.000 son las siguientes:

| Erakundea Organismo | Deialdia Convocatoria | Onartze data Fecha de aprobación | Zenbatekoa Importe | Onartutako dirulaguntza Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | **GUZTIRA/ TOTAL** | | |

**5.** TicketBAI altako fitxategiak FakturaBAI edo Ef4ktur ez den beste software batekin sortzeko konpromisoa hartzen duela.

**5º.** Que se compromete a generar los ficheros de alta TicketBAI con un software diferente a FakturaBAI o Ef4ktur.

**6.** Ezagutzen eta onartzen ditu Laguntza Programako araudian ezarritako baldintzak.

**6º.** Que conoce y acepta las condiciones establecidas en la normativa reguladora del Programa de Ayudas.

Lekua eta data / Lugar y fecha

……………………… 2022eko, ………………………..(a)ren……a

En ………………………, a…… de ……………………………de 2022

Izptua. / Fdo.:

*Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiaren (Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia) ardurapeko datu tratamendu batean sartuko direla. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, aurkaratzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, helbidehorretara idatzi bat bidaliz.*

*Zure datu pertsonalak tratatzeko helburua da dirulaguntzen deialdia kudeatzea eta ebaztea, deialdiak duen interes publikoan eta parte*

*Se informa que sus datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es la Dirección General de Promoción Económica (plaza Gipuzkoa s/n, San Sebastián) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo.*

*Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria de subvenciones, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de*

EK\CV GAO-I-2022-02589

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

*hartzeko egin duzun eskaeran oinarrituta.*

*Eskatzaileen datuak jakinarazi ahal izango zaizkie zerga administrazioari eta fiskalizazio organoei, kontabilitate kontrola egiteko, eta banketxeei, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege mailako araudian jasotzen diren kasuetan.*

*Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozeduraren tramitazioak eta sor daitezkeen erreklamazioen tramitazioak irauten duen bitartean.*

*Zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.*

*participación en ella.*

*Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de Ley.*

*Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.*

*Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.*

EK\CV GAO-I-2022-02589